



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/09/15) Hurrengo saioa: 2017/09/29	Erretaula	Irailaren 21ean Félix Etxeberria Goñirekin egoteko aukeraz baliatu eta Javier de Migueli andamiotara igo eta nahiko lukeenak bisita egiteko aukeraz galdetu.	Honen berri herritarrei adierazi
	Kirol eskaintza inkesta	Kirol jardueretako inkestak, modalitate guztiak kontuan izanda, 80 erantzun izan ditu. Emaitzak aztertuta, aurreikus daiteke 6 talde osa daitezkeela: 1. Yoga/pilates 2. Aerobic eta zumba 3. Dantza 4. Frontenisa 5. Paseo taldea 6. Igandetako mendi irteera	Batzuk herritarron artean antola ditzakegu eta beste batzuk Zerki kirol enpresakoekin landuko ditugu. Berarekin harremanetan jarri eta egoera azaldu. Eta, edozein modalitatetan interesa dutenekin, taldeak, ordutegiak, egutegiak eta lekuak erabakitzeke ostiralean, hilak 22, 19.00etan Itsasoko eskola zaharrean bilera.
	Itsasoko festen balantzea	Balantze ekonomikoa egin da, izan diren sarrera eta gastu guztiak azalduta. Ondorengo afaria egiteko dagoela, kontuan 995,96€ daude.	Erabakitzeke geratu da noiz eta non egin festatan boluntario lanetan aritutakoekin afaria
	Hurrengo bileran lantzeko gaiak	Alegiako frontoiaren ordenantzak Euskara ikasteko eta suspertzeko ekimen proposamenak	



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2017/09/23) Hurrengo saioa: 2017/10/07	Itsasoko udaletxerako proiektua	Foru Aldundiko Jon Sánchez arkitektoak aurkeztutako proposamena atalez atal aztertu da: teilatua, sarrera..	Egin beharreko eskariak: Goiko solairuaren zorua berritzea eta kanpoko pretil ertza kenduz, errepidearen bihurgunea zuzenago izateko aukera. Eta barneko proiektua: ate sarrerak udala eta etxebizitzarako eta gora doan eskailearena.
	Gipuzkoako suhiltzaileen antolaketa berriaren proposamena	GFArekin izandako bileran, Gorka Sasietak jasotako informazioa zabaldu du, oraingo parkeak eta 2030rako nahi diren hobekuntzak teknikoki argudiatuz.	Gure herriari dagokionez Ordizia eta Bergara egokituko litzazkioke.
	ETS kaltetuen tramitazioa	Kaltetuen artean bilera egin ondoren, sailen egoera lehenera ekartzeko eskatuz (Udalak ere eskaria babestuta) dokumentazioa eta eskabidea ETS, ADIF eta Estatuko Herri Defendatzalleari bidaliko dizkiete.	
	Ambientalia21 Nekazal Lurren azterketa	Aurtengo ikerketa lanen berri hainbat bileretan zabalduko dute. Guri dagokigunez: -Irailaren 27an, 18:00etan, Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoan. -Urriaren 5ean, 18:00etan, Ezkioko udaletxean.	Itsasoar guztiei honen deialdia banatu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/09/19) Hurrengo saioa: 2017/10/03	Kirol eskaintzarako Zerki enpresako Asierrekin bilera	Pilates eta Zumba taldeetarako erakusleak aurkitzen saiatuko da Asier. Honekin batera, ekintzak izango lukeen aurrekontua ere (kirol eskaintza + desplazamendua) aurkeztuko du ostiralerako. Herrian antolatuko ditugun beste kirol ekimenez gain, Ikasturte osorako eskaintza litzateke, urrian hasita.	Udal aurrekontuetatik, diru kostu bat duten ekintzek zenbateko subentzioa izango lukeen aztertu.
	Web orria	- UDALA atalean osatutakoari onarpena eman eta osatzeko dauden atalen inguruan falta dena egiteko ardurak banatu (Udal osoko bilkurak eta Herri batzarrak / Udal ordenantzak eta tasak / Hiri antolaketa / Zerbitzuak). - Eginda dauden atalak Itsasoko Udala web orrian ikusgai izango dira ondorengo asteetan.	Osatzen joan garena partekatu.
	Ekimenen egutegia	Urriko ekimenen egutegia adostu da: - Urrian Alegian egin beharreko bilera, parkea berritzen hasi aurretik - Urriak 8, mendi irteera - Urriak 21, Herri Batzarra - Urriak 29 Biolur Ate Irekiak - Azaroan, Auzolana (data aurrerago zehaztuko da)	Ekimen bakoitzaren antolaketa.